

Euskal AEko industria-jarduera % 6,6 hazi zen 2021eko azaroan


2021eko lehendabiziko hamaika hilabeteetan Industria-produkzioaren indizeak metaturiko hazkundea % 10,4 izan da

Eustaten datuen arabera, eta lan-egutegiko termino homogeneoetan, Euskal AEko industria-produkzioa, 2021eko azaroan, 2020ko hil berekoa baino % 6,6 handiagoa izan da. 2021eko lehendabiziko hamaika hilabeteetako balantzearen amaieran, industria-jarduerak % 10,4ko igoera izan du.

Urtaroen eragina zuzenduta, % 1,4 hazi da Euskal AEko industria-produkzioa, 2021eko azaroa eta 2021eko urria alderaturik.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2021eko azaroko indizearen bilakaera positiboa izan da industria-sektore handi guztietan, 2020ko azaroarekin alderaturik. *Kontsumo-ondasunek*, orotara, % 17,9ko igoera izan dute; *Kontsumo-ondasun iraunkorrek* % 19,0ko igoera izan dute, eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* % 17,7koa. *Kontsumo-ondasun iraunkorrek* epigrafean altzariak eta etxeko tresnak fabrikatzeko jarduerak ageri dira. Elikagaien fabrikazioa, prozesatzea eta kontserbazioa, garbiketarako eta higienarako produktuen fabrikazioa eta jantziak egitea dira, besteak beste, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* sektore handiaren barruko jarduerak.

Ekipo-ondasunak (non dauden motordun ibilgailuen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbide-materialaren egitea eta aireontziak edo itsasontziak egitea), bestalde, % 8,6 igo dira aurreko urteko azaroaren aldean.

Energia % 7,3 goratu da 2021eko azaroan urte arteko terminoetan. Sektore horretan sartzen dira energia elektrikoaren ekoizpena eta hornidura eta petrolioaren fintzea. Bestalde, *Bitarteko ondasunen* sektoreak, non sartzen baitira metalurgiako jarduerak eta produktu metalikoen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxu eta plastikozko produktuen fabrikazioa, % 2,2ko igoera izan du.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2021ko Azaroa.

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak	
	m / m-12	Am / A(m-12)	m / m-1	m-1 / m-2
INDIZE OROKORRA				
Euskal AE	6,6	10,4	1,4	2,1
Araba/Álava	6,9	8,1	4,9	4,7
Bizkaia	3,9	9,3	-1,2	2,6
Gipuzkoa	9,1	13,0	1,9	0,3
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	17,9	12,2	4,6	0,1
Kontsumoondasun iraunkorrak	19,0	34,6	-1,6	4,0
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	17,7	7,4	6,3	-0,9
Ekipo-ondasunak	8,6	12,3	3,7	2,4
Bitarteko ondasunak	2,2	11,4	2,9	-0,4
Energia	7,3	-1,0	-2,4	13,5

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtariletik behatutako azken hileraren arteko metatutako aldiaren (Am), aurreko urtean pilatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m-1 / m-2 Azken aurreko hileko (m-1) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-2) aldean

Data 2022ko Urtarrilaren 10a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Xehekiago, Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, honako hauek izan dute urte arteko hazkunderik handiena 2021eko azaroan: *Elikaduraren, edariaren eta tabakoaren industrien* (% 17,1eko igoera), *Makineria eta ekipoak* (% 15,6ko igoera) eta *Energia elektrikoa, gasa eta lurrunak* (% 10,7ko igoera). Aitzitik, sektore hauek dira ekoizpenean jaitsierarik bizi izan dutenak: *Kautxua eta plastikoak* (% 9,6 behera), *Zura, papera eta arte grafikoak* (% 4,6) eta *Material eta ekipo elektrikoa* (% 1,9).

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektorre nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	5,959
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	10,717
09 - Kautxua eta plastikoak	-9,649
13 - Makineria eta tresneria	15,621
14 - Garraio-materiala	8,44
03 - Elikadura ind., edariak eta tabakoa	17,053
12 - Material eta ekipa elektrikoaren fabrikazioa	-1,865
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoa	-4,564

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1) Euskal AEko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2022ko Urtarrilaren 10a

Iturria: Eustat, Industria-produkzioaren indizea

Azaroko Industria-produkzioaren indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da hiru lurraldeetan: Gipuzkoan % 9,1, Araban % 6,9 eta Bizkaian % 3,9.

2021eko lehendabiziko hamaika hilabeteetako metatuan, Gipuzkoa da hazkunde handiena izan duen lurraldea, 2020ko aldi beraren aldean (% 13,0 gora); ondoren, Bizkaia dago (% 9,3 gora) eta, azkenik, Araba (% 8,1eko hazkunde).

INFORMAZIO OHARRA

Egutegiaren eraginak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabilitako modeloek COVID-19ak aztertutako aldagaietan duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#) ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraituz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, azaroko indizea laginaren **% 92,01eko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62